

SCIENCE ALDIZKARIAN ARGITARATUTAKO IKERKETA BATEK KLIMA ALDAKETAREN TESTUINGURUAN NEKAZARITZAREN BENETAKO KOSTUA AZALDU DU

Lurrari ez zaio ateratzen ahal den etekin guztia Ikerbasque-ko, Basque Centre for Climate Change-ko (BC3), eta Cambridge Unibertsitateko Unai Pascual ikerlariak eta ingurumen-ekonomialari talde batek egindako ikerlan berri baten arabera.

Science aldizkarian argitaratu den ikerketaren (2013ko uztailaren 5ean) arabera, lurraren erabilera nekazaritza-merkatuen arabera soilik zehazteak **ingurumen kostu handi samarrak ekar diezaikeke pertsoneri**. Nahiz eta ikerketak Erresuma Batua ikergai hartu duen, metodo berberak **aplika daitezke munduko edozein tokitan** eta emaitza berdintsuak lortu herrialde askotan. Europako toki gehienetan nekazaritzak menderatzen du lurraren erabilera. Europar Batasuneko nekazaritzaren urteko balio guztiaren ia erdia laguntza-finantzario publikoan oinarritzen da, % 70etik, % 40etik eta % 30etik gora Irlandan, Erresuma Batuan eta Espainian, bakar batzuk aipatzeagatik.

Ikerketa-taldeak, East Anglia-ko Unibertsitateko (Erresuma Batua) **Ian Bateman irakaslearen zuzendaritzapean**, Erresuma Batuan laguntza publiko horrek duen errentagarritasunari so egin zion. Horretarako, lurraren erabilerari buruzko milioi erdi erregistro erabili ziren, eta gaur egungo lurraren erabilera-ereduek gizartearentzako balio eskasa dutela aurkitu zuen, diru-laguntzen mailari erreparatzen badiogu. Ikerlanak politika publikoak birbideratzen badira egoera nabarmen hobe dezakela aditzera eman zuen. Nekazaritzarako diru-laguntza gisa dauden begien bistako finantza-kostuekin batera, ikerketa-taldeak klima-aldaketak eragindako egungo eta etorkizuneko nekazal lurren erabileraren balio ekonomikoa kalkulatu zuen, eta baita ere **elikagai-produkzioaren balioa eta lotutako ingurumen-inpaktuak —klima-aldaketa erantzule diren berotegi-efektuko gasak eta jendearentzako atsedenerlekuek barne—**. Halaber, nekazaritza intentsiboak sortutako espezie basatien eta biodibertsitatearen beherakadaren eragina kontuan hartu zuen. Etorkizunari begira, ikerketak beste lurraren erabilerak aztertu eta 2060. urtera arteko hainbat egoera ebaluatu zituen.

Ikerlanak frogatu duenez, ezin bestekoa da **ekosistema-zerbitzuak erabaki-hartzeetan kontutan hartzea, ingurune naturalarekin lanean** aritzeagatik onura potentzialak guztiz erabiltzea eta prozesu biofisikoak azpi-berritzea. Hala ere, erronka praktikoak ezinbestekoak direla aitortzen du ikerlanak. Erronka nagusietariko bat nekazariak gizartearen onurarako lurraren erabileraren aldaketetan parte har dezaten bermatzeko mekanismoa da. Ikerketa-taldeak Europar Batasuneko (EB) Nekazaritzako politika bateratua (NPB) erreformatzea aholkatzen du. NPBa Ekosistema Zerbitzuengatik Ordainketa mekanismo gisa bat egingo balitz, nekazariak funtsezko ekosistema-zerbitzu sorta eskaintzeagatik (klima-aldaketa leuntzea barne, berotegi-efektuko gasen murrizketak direla medio, ura arautzearen, eta atsedenerlekuen eta biodibertsitatearen kontserbazioaren bidez) saria jasoko lukete.

Unai Pascual unibertsitateko irakaslek adierazi zuen: «Ikerlan honek nekazaritza intentsiboak European duen ohiko laguntzek gizartearentzako ez dutela behar beste funtzionatzen frogatzen du. Horren ordez, politikak errealtateari egin behar dio aurre; izan ere, nekazaritza-merkatuek zama gehiegi dute eta, ondorioz, behar ez diren kostuak dakartzkio gizarteari ingurumen-eragin moduan, askotan itzulezina, biodibertsitatearen galera, besteak beste». «Kostu horiei balio bat eman diegu eta European nekazaritza-politikek menderatzen dituzten merkatuak aldatzen ez badira, landa inguruak gizarteari eskaintzeko dituen onurak txikiagoak izango dira (gaurko eta etorkizuneko belaunaldientzat)». «Froga eskuan dugula, ezinbestekoa da lurraren erabilerari buruzko politiken norabidea guztiz aldatzea, landa ingurunetatik ahalik eta etekinik handiena lortzeko, berotegi-efektuko gasak gutxituz, uraren kutsadura murriztuz, atsedenerlekuek eta hiriko berdeguneak suspertuz eta biodibertsitatea hobetuz». «EBren Nekazaritzako politika bateratuak naturarekin elkarlanean ez aritzeagatik kostuaren kontu eman behar dio gizarteari.



BASQUE CENTRE
FOR CLIMATE CHANGE
Klima Aldaketa Ikergai

Bada garaia nekazariak saritzeko, gizarteak estimu handitan dituen funtsezko ekosistema-zerbitzuak bermatzeagatik. Nekazariak gure landa inguruaren administratzaile izan daitezke, horrela guk gizarte moduan hurrengo belaunaldiei lur osasuntsuak utz diezazkiegun».

Ikerbasqueko Unai Pascual unibertsitateko irakaslea «**Climate and the Natural Environment**» (Klima eta Ingurune Naturala) ikerketa-estrategiaren zuzendaria da Basque Centre for Climate Change (BC3) zentroan eta irakasle titularra da Cambridge-ko unibertsitatean. Ikerketa hau finantzatu dute: UK National Ecosystem Assessment-ak (NEA, Erresuma Batuko Ekosistemen Ebaluazio Nazionala) eta bere segimendu-programak (Erresuma Batuko Ingurumen, Janari eta Nekazaritza Gaienezako Sailak [DEFRA] finantzatuta biak), Eskoziako, Galeseko eta Ipar Irlandako administrazio ordeztuak, Natural Environment Research Council-ak (NERC, Ingurune Naturalaren Ikerketarako Kontseilua) eta Economic and Social Research Council-ak (ESRC, Ikerketa ekonomikoa eta sozialerako Kontseilua) eta Economic and Social Research Council-aren (SEER) proiektuak.

«Bringing ecosystem services into economic decision making: Land use in the UK» Egileak: Bateman, Ian J., Harwood, A., Mace, G.M., Watson, R., Abson, D.J., Andrews, B., Binner, A., Crowe, A., Day, B.H., Dugdale, S., Fezzi, C., Foden, J., Haines-Young, R., Hulme, M., Kontoleon, A., Lovett, A.A., Munday, P., Pascual, U., Paterson, J., Perino, G., Sen, A., Siriwardena, G., van Soest D. eta Termansen, M. Science aldizkarian argitaratua 2013ko uztailaren 5ean.